



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, uztailaren bostean, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 1a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 1a

2. ERABAKIA: AGIRI ETA ERABAKIEN EZAGUTZERA EMATEKO MODUA

(5.6 nomenklatura)

Auzapezak jakitera eman du, Frantziako 2021eko urriaren 7ko 2021-1310 ordenantzak eta 2021eko urriaren 7ko 2021-1311 dekretuak lurralde erakundeen agiri eta erabakien ezagutzera emateko eta indarrean sartzeko arauak aldatu dituztela 2022ko uztailaren 1etik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko (LKKO) L.2131-1 artikulua segituz.

Erreforma hori dela-eta, 3 500 biztanletik beherako Herrietako Herri Biltzarrek honako aukeretako bat hautatu behar dute beren erabaki eta agirien berri emateko:

- Herriko Etxean afitxatzea;
- paperean argitaratuz, Frantziako LKKOko R.2121-9 eta R.2122-7 artikuluek finkatu baldintzetan;
- edo modu elektronikoan, Herriko webgunean.

Zehaztu du, erabakirik hartu ezean, Herriaren webgunean argitaratzea ezinbestekoa izanen dela.

Bestalde, Herri Biltzarraren hautua agintaldiaren iraupen berekoa da, baina une oro alda daiteke.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, agintaldiaren iraupenerako, arauzko erabaki eta agirien ezagutzera ematea afitxatze bidez egingen dela.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko uztailaren 5ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/07/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/07/08an.